

Xedapen Orokorrak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2047

69/2011 DEKRETUA, apirilaren 5koa, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena.

Aurre egin beharreko premia-egoeren izaera gero eta konplexuagoa, mistoagoa eta anitzagoa aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak lankidetzarako eta koordinaziorako guneak egituratzearen aldeko apustua egiten du beren esparruko zonetan kokatzen diren premia-egoerei erantzuna eman diezaieketen sistema eta politika publikoen artean.

Esparru horretan, lege-testuinguruak arreta soziosanitarioa indartzeko premia berezia azpimarratzen du. Izan ere, eremu sanitarioaren eta gizarte-zerbitzuen eremuaren artean, elkarguneak oso nahasiak izan daitezke kasu batzuetan, batez ere bi sektoreen helburua delako pertsonen arreta-zerbitzuak ematea, eta beti ez delako erraza zehaztea zaintza mota jakin bat noiz ez den sanitarioa eta bai soziala, edo noiz ez den soziala eta bai sanitarioa.

Hain hurbil dauden sistemen arteko koordinaziozailtasunek emandako arretaren kalitatean nahiz sistema propioen erabileran eta funtzionamenduan eragin negatiboa izan dezaketela aintzat hartuta –hain zuzen ere, Arreta Soziosanitarioari buruzko Arartekoaren Ezohiko Txostenak 2007an adierazi zuenez, «arreta egokia behar den eraginkortasunarekin emateko ezintasunak baliabideen erabilera txar batera zuzentzen du, behar ez ziren kostuak eraginez bi sistemetan», ezinbestekoa da bideak ezartzea, premia misto eta konplexu horiei erantzuna emateko jardun sanitarioak eta sozialak elkarren artean erlazionatzen direla bermatzearren.

Harreman-esparru hori arreta soziosanitario gisa izendatzen da, eta funtsezko honako elementu hauek oinarrituta definitzen da:

- Esku-hartze mistoak –sozialak eta sanitarioak– aldi berean edo segidan eskatzen dituzten premia-egoera konplexuei erantzuten die, baina, nolahi ere, esku-hartze horiek osagarriak dira eta hertsiki egituratuta daude.

- Helburu nagusi bat dauka: zainketen jarraipena bermatzea, desoreka materialak –gainjartzeak eta hutsuneak edo defizita estalduran– eta denborazko desorekak saihestuz –desfaseak edo itxaronaldiak esku-hartzeen artean eta zerbitzuen artean–.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2047

DECRETO 69/2011, de 5 de abril, del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Dada la naturaleza cada vez más compleja, mixta y plural de las situaciones de necesidad a afrontar, la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales apuesta por la configuración de espacios de cooperación y coordinación entre diferentes sistemas y políticas públicas susceptibles de dar respuesta a situaciones de necesidad que se ubican en sus zonas de confluencia.

En este marco, el texto legal destaca la especial necesidad de reforzar la atención sociosanitaria. En efecto, entre el ámbito sanitario y el ámbito de los servicios sociales, las zonas de confluencia pueden resultar en algunos casos particularmente confusas, debido, principalmente, a que ambos sectores tienen por finalidad prestar servicios de atención a la persona y a que no siempre resulta sencillo determinar cuándo un tipo de cuidado deja de ser sanitario para ser social o de ser social para ser sanitario.

Dado que las dificultades de coordinación entre sistemas tan cercanos puede tener un impacto negativo tanto en la calidad de la atención prestada como en la utilización y funcionamiento de los propios sistemas –en la medida en que, como señaló, en 2007, el Informe Extraordinario del Ararteko sobre la Atención Sociosanitaria, «la incapacidad para ofrecer, con eficacia la atención idónea, conduce a una utilización ineficiente de los recursos, generando costes innecesarios para ambos sistemas»–, resulta indispensable establecer cauces que garanticen que las actuaciones sanitarias y sociales se interrelacionen para dar respuesta a esas necesidades mixtas y complejas.

Ese marco de interrelación, al que se alude como atención sociosanitaria, se define en base a los siguientes elementos esenciales:

- Responde a situaciones de necesidad complejas que requieren de intervenciones de naturaleza mixta, sociales y sanitarias, de forma simultánea o también secuencial, pero en todo caso complementaria y estrechamente articulada.

- Tiene un objetivo principal: garantizar la continuidad de los cuidados, evitando desajustes materiales –solapamientos y vacíos o déficit de cobertura– y desajustes temporales –desfases o tiempos de espera entre las diferentes intervenciones y los diferentes servicios–.

- Diziplinartekotasun-printzipioaren inguruan egiratzen diren lankidetzatresna eta estrategia batzuk erabiltzen ditu.

- Pertsonengan oinarritutako arreta integraleko ikuspegi batean dauka bere zentzua eta oinarria, eta ahal den ongizate, bizitza-kalitate eta autonomia handiena bermatzea du helburu, ahal izanez gero, bere ohiko ingurune sozialean geratzeari eta arreta etxean emateari lehentasuna emanaz.

Ikuspegi horretatik abiatuta, Legeak zehazten du arreta soziosanitarioak osasun-arazo larriengatik, edo muga funtzionalengatik, eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuagatik, aldi berean arreta sanitario eta sozial koordinatua eta egonkorra behar dutenentzako arreta guztiak bilduko dituela, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokitua.

Aurreikuspen horiek Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 14. artikuluan xedaturikoa errespetatzen dute. Horren bitartez, arreta soziosanitarioaren prestazioa arautzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gune soziosanitario hori eraikitzeke, arlo horretan eskumena duten erakunde guztien arteko koordinazio-eredu bat hautatu da, horien politiken harmonizazioan oinarrituta. Koordinazio-eredu hori duela zazpi urte jaso zen Euskal Autonomia Erkidegoan arreta soziosanitarioa garatzeko Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Eudel Euskal Udalen Elkarteak 2003ko urtarrilaren 30ean sinatutako lankidetzahitzarmenean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Arreta Soziosanitarioa garatzeko Plan Estrategikoan bildutako diseinu, eraikuntza eta garapeneko elementuetan (2005-2008). Aurrekari horiek kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotzen den ereduarekin bada.

Lankidetzatresna eta koordinazio horren artikulazioari dagokionez, lege-testu honek aurreikusten du Erkidegoan Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren esku egongo dela. Izan ere, koordinazio soziosanitarioaren arloko erabaki politikoaren, araukoen, ekonomikoaren, antolamenduzkoen eta asistentzialen orientazioa eta jarraipena da kontseiluaren helburua, lehen mailako eta bigarren mailako arretan koordinazio soziosanitarioa sustatzea eta ahalbidetzea, baita diziplinaren arteko lanaren esparruan eta erabiltzaileekiko esku-hartzearen ibilbideen diseinuan ere, lurralde-kontseiluen, batzordeen edo izaera mistoko bestelako erakundeen forma hartuko duten beste koordinazio-bide batzuetara esleitzuz.

Kontseilu horrek bere funtzionamendu-araudia bere kabuz ezarri ahal izango duela alde batera utzi gabe, ezinbestekoa da aldeaz aurretik horren egin-

- Recurre para su prestación a una serie de estrategias e instrumentos de colaboración que se articulan en torno al principio de interdisciplinariedad.

- Tiene su sentido y fundamento en un enfoque de atención integral centrado en la persona y orientado a garantizar el máximo nivel de bienestar, calidad de vida y autonomía, otorgando prioridad y facilitando, siempre que sea posible, su permanencia en su entorno social habitual y la atención en su domicilio.

Desde esta perspectiva, la Ley explicita que la atención sociosanitaria comprenderá el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.

Esas previsiones son respetuosas con lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 16/2003, de 28 de mayo, de Cohesión y Calidad del Sistema Nacional de Salud, en el que se regula la prestación de atención sociosanitaria.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha optado, para la construcción de este espacio sociosanitario, por un modelo de coordinación entre todas las instituciones competentes en la materia, basado en la armonización de las respectivas políticas. Este modelo de coordinación se recogió hace ya siete años en el espíritu del convenio de colaboración suscrito el 30 de enero de 2003 entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y la Asociación de Municipios Vascos Eudel, para el desarrollo de la atención sociosanitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en los elementos de diseño, construcción y desarrollo recogidos en el Plan Estratégico para el Desarrollo de la Atención Sociosanitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco (2005-2008). También es el modelo que, atendiendo a esos antecedentes, se recoge en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

En relación con la articulación de esta cooperación y coordinación, este texto legal prevé que, a nivel autonómico, recaerá en el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, cuya finalidad es la orientación y el seguimiento de las decisiones políticas, normativas, económicas, organizativas y asistenciales en materia de coordinación sociosanitaria, asignando, en cambio, la promoción y facilitación de la coordinación sociosanitaria en los niveles de atención primaria y secundaria, así como en el marco del trabajo interdisciplinar y en el diseño de los itinerarios de intervención con las personas usuarias, a otros cauces de coordinación que adoptarán la forma de consejos territoriales, comisiones u otros órganos de carácter mixto.

Sin perjuicio de que dicho Consejo establezca por sí mismo su reglamento de funcionamiento, es necesario delimitar previamente sus funciones, así como

kizunak mugatzea, baita bere osaera eta oinarritzko funtzionamendu-jarraibideak ere, Legearen 46.6 artikulua «a» letran ezarritako aginduari jarraiki.

Hori guztia kontuan hartuta, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren eta Osasun eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Bartzorde Juridikoari jarraiki, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko apirilaren 5ean egindako bilkuran alde aurretik eztabaidatu eta onartu eta gero, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Dekretu honen xedea honako hau da: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46.6 artikulua aplikatu eta garatuz, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eginkizunak, osaera eta oinarritzko funtzionamendu-jarraibideak arautzea.

2. artikulua.– Izaera.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua da Erkidegoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskadiko Osasun Sistemaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa egituratzen duen organoa.

3. artikulua.– Atxikipena eta egoitza.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikiko zaio, horren hierarkia-egituran sartu gabe, eta sail horren bulegoetan izango du bere egoitza.

2.– Dena dela, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak Autonomia Erkidegoko beste edozein lekutan egin ahal izango ditu bilkurak.

4. artikulua.– Helburua eta eginkizunak.

1.– Oro har, Kontseiluaren helburua da koordinazio soziosanitarioaren arloko erabaki politikoaren, arauzkoen, ekonomikoaren, antolamenduzkoen eta asistentzialen orientazioa eta jarraipena.

2.– Zehazki, honako eginkizun hauek ditu:

a) Arreta soziosanitarioaren oinarritzko politikak definitzeko proposamenean parte hartzea.

b) Arreta soziosanitarioaren funtzionamendurako arau eta irizpide orokorrak ezartzeko adostasuna orientatzea.

c) Arautze juridiko espezifiko behar duten arreta soziosanitarioarekin lotutako gaiak jakitea eta eztabaidatzea, horri buruz galdetzen diotenerako.

d) Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu aurretik, Arreta Soziosanitarioko laurteko Plan Estrategikoa ezagutzera ematea, eta, horren indarraldia amaitu ondoren, bertan txertatutako neurrien egikaritze- eta ezarpen-mailaren ebaluazioa egitea.

su composición y sus pautas básicas de funcionamiento, en consonancia con el mandato establecido en la letra «a» del artículo 46.6 de la Ley.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales y del Consejero de Sanidad y Consumo, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de abril 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto del presente Decreto regular las funciones, la composición y las pautas básicas de funcionamiento del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, en aplicación y desarrollo del artículo 46.6 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Artículo 2.– Naturaleza.

El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria es el órgano que articula, a nivel autonómico, la cooperación y la coordinación entre el Sistema Vasco de Servicios Sociales y el Sistema Sanitario de Euskadi.

Artículo 3.– Adscripción y sede.

1.– El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria queda adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Sanidad, sin insertarse en su estructura jerárquica, y tiene su sede en las dependencias del mismo Departamento.

2.– No obstante, el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria podrá celebrar sesiones en cualquier otro lugar del territorio de la Comunidad Autónoma.

Artículo 4.– Objetivo y funciones.

1.– Con carácter general, el Consejo tiene por finalidad la orientación y el seguimiento de las decisiones políticas, normativas, económicas, organizativas y asistenciales en materia de coordinación sociosanitaria.

2.– Con carácter específico, sus funciones son:

a) Participar en la propuesta de definición de las políticas básicas de la atención sociosanitaria.

b) Orientar el consenso para establecer las directrices y los criterios generales de funcionamiento de la atención sociosanitaria.

c) Conocer y debatir las cuestiones relacionadas con la atención sociosanitaria que requieran una regulación jurídica específica, cuando sea consultado al respecto.

d) Informar, con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, el Plan Estratégico cuatrienal de Atención Sociosanitaria y proceder, tras finalizar su vigencia, a la evaluación del nivel de realización e implantación de las medidas incorporadas al mismo.

e) Hala badagokio, zerbitzuen eta prestazioen katalogoa eta/edo kartera bateratua definitzeko proposamenean edo baliabideak egokitzen direla eta arreta egokia dela bermatzera bideratutako beste formula edo tresna batzuk definitzeko proposamenean parte hartzea.

f) Autonomia Erkidegoan aplikatu daitezkeen lankidetzako eta koordinazioko tresnen eta protokolo bateratuen diseinua eta onarpena orientatzea.

g) Antolamendu-ekimenak edo zerbitzu esperimentalak martxan jar daitezkeen sustatzea, proiektu pilotu gisa, bi jardun-eremuen artean koordinazio hobea lor dezaketenen formula berriak probatzera zuzendua.

h) Arreta soziosanitarioko ereduaren ezarpenerako behar diren finantza-baliabide publikoak aurreikustea.

i) Esparru soziosanitarioan lan egiten duten erakundeak eta profesionalen eta erabiltzaileen elkarteak informazioa emateko mekanismoak ezartzea.

j) Foru Aldundietan eta udaletan izan beharko diren koordinazio-bideen sorrera eta funtzionamendua sustatzea eta babestea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46. artikuluko 6.b) idatz-zatian aurreikusitakoa betez. Bide horiek lurralde-mailako kontseiluen, batzordeen eta izaera mistoko bestelako erakundeen bitartez gauzatuko dira, lehen mailako eta bigarren mailako arretan koordinazio soziosanitarioa sustatzeko eta ahalbidetzeko helburuarekin, baita diziplina arteko lanaren esparruan eta erabiltzaileekiko esku-hartzearen ibilbideen diseinuan ere.

3.- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak, bere eginkizunak gauzatzeko, behar duen informazio guztia hartuko du osasun-administrazioetik eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten euskal administrazio publikoetatik. Era berean, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzaren esku jarriko du bere eskuetan dagoen eta organo horrek eskatzen dion informazioa.

5. artikulua.- Osaera.

1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46.6 artikuluan aurreikusitako ordezkari paritarioko irizpidea kontuan hartuta, alde batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan eskumena duten Autonomia Erkidegoko, aldundietako eta udaletako administrazio-publikoetako ordezkarien, eta, bestetik, Euskadiko Osasun Sistemako ordezkarien artetik, Kontseiluak hamabi kide hartuko ditu, hau da, sei kide ordezkaturako sistema bakoitzeko.

2.- Aurrekoaren ildotik, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak honako kide hauek izango ditu:

e) En su caso, participar en la propuesta de definición del catálogo y/o de la cartera conjunta de servicios y prestaciones u otras fórmulas o instrumentos orientados a garantizar la adecuación de los recursos y la idoneidad de la atención.

f) Orientar el diseño y la aprobación de instrumentos y protocolos conjuntos de colaboración y coordinación que resulten aplicables al ámbito autonómico.

g) Promover la puesta en marcha de iniciativas de organización o de servicios de carácter experimental, en forma de proyectos piloto, orientados a probar nuevas fórmulas susceptibles de favorecer una mejor coordinación entre los dos ámbitos de actuación.

h) Prever los recursos financieros públicos necesarios para la implantación del modelo de atención sociosanitaria.

i) Establecer mecanismos de información a las entidades y asociaciones de profesionales y usuarios que trabajan en el ámbito sociosanitario.

j) Promover y apoyar la creación y el funcionamiento de los cauces de coordinación que deberán existir a nivel foral y municipal, en cumplimiento de lo previsto en el apartado 6.b) del artículo 46 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en forma de consejos territoriales, comisiones u otros órganos de carácter mixto, orientados a promover y facilitar la coordinación sociosanitaria en los niveles de atención primaria y secundaria, así como en el marco del trabajo interdisciplinar y en el diseño de los itinerarios de intervención con las personas usuarias.

3.- El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria recabará para el ejercicio de sus funciones la información que precise de la administración sanitaria y de las administraciones públicas vascas proveedoras de servicios sociales. Asimismo, pondrá a disposición de la Alta Inspección en materia de Servicios Sociales la información de que disponga y le sea solicitada por dicho órgano.

Artículo 5.- Composición.

1.- Atendiendo al criterio de representación paritaria previsto en el artículo 46.6 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, entre, por un lado, los representantes de las administraciones públicas autonómica, foral y municipal competentes en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales y, por otro, los representantes del Sistema Sanitario de Euskadi, el Consejo contará con doce miembros, seis en representación de cada uno de los sistemas representados.

2.- Atendiendo a lo anterior, el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria estará compuesto por las y los miembros siguientes:

a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ordezkatzeko:

– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburu titularra.

– Foru-aldundi bakoitzak, dagokion gobernu-organoren bidez, izendatu beharreko ordezkari bana.

– Ordezkari 1 Udalek Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen bidez (toki-erakundeen elkarteen artean hedatuena den aldetik) izendatuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen hamabi-garren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren ordezkari 1, sailburu titularrak izendatutakoa.

b) Euskadiko Osasun Sistema ordezkatzeko:

– Osasunaren arloan eskumena duen Eusko jaurlaritzako sailburu titularra.

– Osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburu titularrak izendatutako 5 ordezkari.

3.– Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa alde batera utzi gabe, kideek erabakiz gero, honako hauek ere parte hartu ahal izango dute bilkuretan, betiere bilkuretan aztertuko diren gaien arabera: ordezkaturako sailtako teknikariek, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua osatzen duten Administrazio Publikoen beste Sail batzuetako ordezkariak, eta Administrazio horiekin zuzeneko loturarik izan gabe ere, jakintza, esperientzia eta izen ona egiaztatua izateagatik esparru sozialean, sanitarioan edo soziosanitarioan aditutzat har daitezkeenek. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

6. artikulua.– Kideen agintaldia.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kideen agintaldia amaitu egingo da honako kasu hauetan:

a) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan ordezkatzeko duen Administrazio publikoak ezeztatzea edo kargu-uztea erabakiz gero.

b) Kargu edo lanpostu jakin bat betetzen zuelako izendatu delarik, kargu edo lanpostu hori galtzen duenean.

c) Epaileak kargu publikoak betetzeko gaitasun-gabetzea edo eginkizungabetzea dakarren ebazpen judicial edo administratibo irmoa hartzen duenean.

d) Heriotza edo gaixotasun ezgaitzailea.

e) Uko egitea.

a) En representación del Sistema Vasco de Servicios Sociales:

– La Consejera o el Consejero titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en Servicios Sociales.

– 1 representante designado por cada una de las Diputaciones Forales a través de sus respectivos órganos de gobierno.

– 1 representante designado por los Ayuntamientos a través de Eudel/Asociación de Municipios Vascos en su calidad de asociación de entidades locales de ámbito autonómico con mayor implantación, de conformidad con lo previsto en la disposición adicional duodécima de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

– 1 representante del Departamento del Gobierno Vasco competente en Servicios Sociales, designado por la Consejera o el Consejero titular del Departamento.

b) En representación del Sistema Sanitario de Euskadi:

– La Consejera o el Consejero titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en Sanidad.

– 5 representantes designados por la Consejera o el Consejero titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en Sanidad.

3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, por acuerdo de las y los miembros, podrán asistir a las sesiones, atendiendo a la naturaleza de las cuestiones objeto de las mismas, personas de nivel técnico de los departamentos representados, representantes de otros departamentos de las Administraciones Públicas que componen el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, así como otras personas que, sin estar directamente vinculadas con ninguna de estas Administraciones, pueden considerarse, por su conocimiento, experiencia y acreditado prestigio, expertas en los ámbitos social, sanitario o sociosanitario. Estas personas asistirán con voz pero sin voto.

Artículo 6.– Mandato de las y los miembros.

1.– El mandato de las y los miembros del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria expirará en los siguientes supuestos:

a) Revocación o cese acordado por la Administración pública en representación de la cual participa en dicho Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

b) Pérdida de la condición cargo o puesto de trabajo en virtud de la cual fue nombrada o nombrado.

c) Resolución firme, de carácter judicial o administrativa, que conlleve la inhabilitación o suspensión para cargos públicos.

d) Fallecimiento o enfermedad incapacitante.

e) Renuncia.

2.– Aurreko edozein arrazoi dela medio, hutsik geratzen diren postuak hilabeteko epean beteko dira, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren idazkariari jakinarazten zaion unetik kontatzen hasita.

7. artikulua.– Ordezkapenak.

1.– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburua edo Osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburua gaixo edo kanpoan dagoenean, dagokion alorretan eskumena duen sailburuak ordezkatuko ditu, hurrenez hurren.

2.– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuak eta Osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuak, Foru Aldundiek, eta Eudel Euskal Udalen Elkarteak izendatuko dituzte Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluan haien gainerako ordezkarien ordezko gisa jardungo dutenak.

8. artikulua.– Funtzionamendua.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren ohiko bilkurak gutxienez hiru hilean behin egingo dira, eta ezohiko bilkurak, aldiz, lehendakariak erabakitzen duenean edo kideen laurden batek, gutxienez, eskatzen duenean.

2.– Ohikoa edo ezohikoa izan, bilkura bat balio osoz eratutzat hartzeko honako hauek bertaratu behar dute, nahitaez: lehendakariak, idazkariak eta Kontseiluko kideen erdiek, gutxienez.

3.– Kontseiluak beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duen guztietan, Autonomia Erkidegoko batzorde teknikoak eratu ahal izango ditu, oro har arreta soziosanitarioan, edo, espezifikoki, talde zehatz batzuetan eragina duten egoerak, premiak, defizitak edo arazoak aztertzeko eta konponbideak proposatzeko.

4.– Batzorde teknikoen osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eskumeneko arloak dira, eta eraketari buruzko dagokion erabakietan zehaztuko ditu alderdi horiek.

9. artikulua.– Erabakiak hartzea.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira.

10. artikulua.– Lehendakaritza.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren lehendakaritza Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak eta Osasunaren arloan eskumena duen sailburuak gauzatuko dute, urtebeteko aldietan eta txandaka. Adierazitako lehen sailaren titularraren esku egongo da lehen urtean lehendakaritza betetzea,

2.– Las vacantes que se produjeran por cualquiera de las causas anteriores serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comuniquen tal circunstancia al Secretario o Secretaria del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Artículo 7.– Suplencia.

1.– En el caso de enfermedad o ausencia del Consejero o Consejera del Gobierno Vasco competente en materia de Servicios Sociales o del Consejero o Consejera del Gobierno Vasco competente en materia de Sanidad, serán sustituidos por la Viceconsejera o Viceconsejero competente en las correspondientes materias, respectivamente.

2.– El Consejero o Consejera del Gobierno Vasco competente en materia de Servicios Sociales y el Consejero o Consejera del Gobierno Vasco competente en materia de Sanidad, las Diputaciones Forales y Eudel / Asociación de Municipios Vascos designarán a quienes, en su caso, actuarán como suplentes del resto de sus representantes en el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Artículo 8.– Funcionamiento.

1.– El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria se reunirá, en sesión ordinaria, como mínimo cada tres meses, y en sesión extraordinaria cuando así lo decida el Presidente o la Presidenta o lo solicite al menos la cuarta parte de sus miembros.

2.– Para entender válidamente constituida una sesión, sea ordinaria o extraordinaria, es necesario que asistan a la misma la Presidenta o el Presidente, la Secretaria o el Secretario y al menos la mitad de las y los miembros del Consejo.

3.– El Consejo podrá constituir, siempre que lo estime necesario o conveniente, comisiones técnicas de ámbito autonómico, para el estudio y propuesta de soluciones a situaciones, necesidades, déficit o problemas que afecten de manera general a la atención sociosanitaria, o que afecten específicamente a determinados colectivos.

4.– La composición, fines, normas de funcionamiento y duración de las comisiones técnicas son competencia del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria quien definirá estos aspectos en los correspondientes acuerdos de constitución.

Artículo 9.– Adopción de acuerdos.

Los acuerdos del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria serán adoptados por mayoría de votos.

Artículo 10.– Presidencia.

1.– La Presidencia del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria se ejercerá, con periodicidad anual y de forma rotatoria, entre el Consejero o la Consejera competente en materia de Servicios Sociales y el Consejero o la Consejera competente en Sanidad. Corresponderá al o a la titular del primer Departa-

Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbata. Lehendakariak ez du kalitatezko botoa izango.

2.– Honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren ordezkari izatea eta, eginkizun hori betetz, beste administrazio-organo batzuekin edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin dituen harremanak eta jardunak zuzentzea.

b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia erabakitzea, gai-zerrenda zehaztea, eta, dagokionean, gaine-rako kideek egindako eskaerak kontuan izatea.

c) Bilkurak zuzentzea eta eztabaidak moderatzea.

d) Bere sinadurarekin bilkuren aktak berrestea, eta erabakien igorpena agintzea.

e) Dekretu hau betetzea eta betearaztea, gainerako kideei bere interpretazioa proposatuz zalantzazko kasuetan, eta Eusko Jaurlaritzari egoki iritzitako alda- ketak proposatuz, funtzionamendua egokia eta arina izan dadin bermatzearen.

11. artikulua.– Idazkaritza.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren idazkaritza Koordinazio Batzorde Iraunkorreko idaz- kari teknikoak gauzatuko du, 13. artikuluan zehazten diren terminoetan, eta bileretan parte hartuko du hitz- arekin baina botorik gabe.

2.– Idazkariak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Bilkurak prestatzea, honako jardun hauen bi- dez:

– lehendakariari aholkuak ematea bilkuretako gai- zerrenda finkatzeko garaian;

– txosten, azterlan edo proposamen izaki, doku- mentu guztiak bildu, ordenatu eta prestatzea, bil- kuran landuko diren gai- buruzkoak badira; kideei helarazi beharko dizkie, bilkuren deialdiarekin eta aurreko bilkuren aktarekin batera;

– landuko diren gaien aurretiazko txostenak pre- statzea.

b) Lehendakariak aginduta, bilkuretarako deialdia egitea, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin.

c) Ohiko eta ezohiko Osoko bilkuretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe, bilkuren aktak egitea, eta hartzen diren erabakiak bideratzea.

d) Fede-emaile gisa jardutea, lehendakariaren oni- ritziarekin, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontsei- luaren txostenak, aktak eta erabakiak egiaztatuz, eta

mento indicado la asunción de la Presidencia durante el primer año, a contar desde la entrada en vigor del presente Decreto. El/la Presidente/a no tendrá voto de calidad.

2.– Tendrá atribuidas las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación del Consejo y, en el ejercicio de esta función, dirigir sus actuaciones y sus relaciones con otros órganos administrativos o a otras entidades públicas o privadas.

b) Acordar la convocatoria de las sesiones ordina- rias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de las y los demás miembros.

c) Presidir las sesiones y moderar el desarrollo de los debates.

d) Refrendar con su firma las actas de las sesiones y ordenar la remisión de los acuerdos.

e) Cumplir y hacer cumplir el presente Decreto, proponiendo a las y los demás miembros su interpre- tación en los casos de duda y proponiendo al Gobier- no Vasco las modificaciones que se estimen oportunas con vistas a garantizar la adecuación y la agilidad del funcionamiento.

Artículo 11.– Secretaría.

1.– La Secretaría del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria recaerá en el secretario o secretaria técnica de la Comisión de Coordinación Permanente, en los términos en los que se define en el artículo 13, y participará en las sesiones con voz pero sin voto.

2.– La Secretaria o el Secretario tendrá atribuidas las siguientes funciones:

a) Preparar las sesiones mediante la realización de las siguientes actuaciones:

– asesorar a la Presidencia en la determinación del orden del día de las sesiones;

– reunir, ordenar y preparar el despacho de todos los documentos, ya se trate de informes, estudios o propuestas, que se refieran a los temas que se vayan a tratar e la sesión y dar traslado de los mismos a sus miembros junto con la convocatoria y el acta de la sesión anterior;

– preparar los informes previos de los asuntos que habrán de ser tratados.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones por or- den de la Presidencia, con un mínimo de 15 días de antelación.

c) Asistir a las sesiones ordinarias y extraordinarias del Pleno con voz pero sin voto, levantar acta de las mismas y dar el curso correspondiente a los acuerdos que se adopten.

d) Actuar de fedataria o fedatario, certificando, con el visto bueno de la Presidenta o del Presidente, los informes, las actas y los acuerdos adoptados por

irizpenen, boto partikularren eta bere zaintzapean jarritako bestelako dokumentuen ziurtagiriak egitea, betiere Kontseiluko lehendakariaren oniritziarekin.

e) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sortzen duen informazioa Kontseiluak erabakitako pertsonen eta erakundeetara helaraztea.

f) Bere kargura dagoen dokumentazioa antolatu eta zaintzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kideentzat eskuragarri izanik.

g) Lehendakariak agintzen dizkion edo bere karguari datzekion kudeaketako eta koordinazioko zeregin guztiak betetzea.

12. artikulua.– Kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kideek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Hitzarekin parte hartzea, botoa emateko eskubidez baliatzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren ohiko eta ezohiko bilkuretan boto partikularra ematea, eta kide diren batzordeetan, botoaren esanahia eta arrazoiak adieraztea.

b) Osaeran parte hartzen ez badu, edozein batzorde teknikorara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.

c) Gai-zerrendan sartzeko proposamenak eta iradokizunak egitea.

d) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea, Kontseiluak ezarritako Batzorde teknikoek azter ditzaten.

e) Bilkuretako deialdiaren eta gai-zerrendaren berri izatea gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin, eta epe berean, gai-zerrendan agertzen diren gaiak lantzeko beharrezkoa den informazioa, baita aurreko bilkuren akta ere, eskura izatea.

f) Kontseiluaren esku dagoen dokumentazioa baliatzea.

g) Kontseiluaren ezohiko bilkura deitzeko eskaera egitea.

h) Galde-eskeak egitea.

2.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko kideek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Kontseiluaren eta parte hartzen duten Batzorde Teknikoen ohiko eta ezohiko Osoko Bilkuretara bertaratzea.

b) Bidezko isiltasunarekin eta zuhurtziarekin jardutea, aztertzen diren gaien izaerak eskatzen duenean.

c) Dekretu hau eta dekretu honen bigarren xedapenen gehigarrian aipatutako araudia betetz jardutea.

el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, y expedir certificaciones, con el visto bueno de la Presidencia o del Presidente del Consejo, de los dictámenes, votos particulares y otros documentos confiados a su custodia.

e) Dar traslado de la información que origine el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria a las personas e instituciones que éste determine.

f) Organizar y custodiar la documentación a su cargo, manteniéndola a disposición de las y los miembros del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

g) Cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la Presidencia o sean inherentes a su condición.

Artículo 12.– Derechos y deberes de las y los miembros.

1.– Las y los miembros del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria tendrán los siguientes derechos:

a) Participar con voz, ejercer su derecho al voto y formular su voto particular en las sesiones ordinarias y extraordinarias del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, y en las comisiones de las que formen parte, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

b) Asistir a cualquiera de las comisiones técnicas en cuya composición no participen, con voz pero sin voto.

c) Presentar propuestas y sugerencias para su inclusión en el orden del día.

d) Presentar propuestas y sugerencias para su estudio por las Comisiones técnicas establecidas por el Consejo.

e) Conocer, con un mínimo de 15 días de antelación, la convocatoria y el orden del día de la sesión, y tener a su disposición, en idéntico plazo, la información necesaria para tratar los temas que figuren en ellos, así como el acta de la sesión anterior.

f) Acceder a la documentación que obre en poder del Consejo.

g) Solicitar convocatoria de sesión extraordinaria del Consejo.

h) Formular ruegos y preguntas.

2.– Las y los miembros del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria tienen los siguientes deberes:

a) Asistir a las sesiones ordinarias y extraordinarias del Pleno del Consejo y de las Comisiones técnicas en las que participen.

b) Actuar con el debido sigilo y reserva cuando así lo exija la naturaleza de los asuntos que se traten.

c) Actuar conforme al presente Decreto y al reglamento referido en su disposición adicional segunda.

13. artikulua.– Koordinazio Batzorde Iraunkorra.

1.– Koordinazio Batzorde Iraunkorra da Kontseilua ordezkaturik Kontseiluaren erabakiak betetzen direla sustatzeaz arduratzen den organoa, eta, erabaki horiek lortzearen, erakundeen arteko posizioen hurbilketa sustatzeaz arduratzen den organoa ere bada.

2.– Batzordea osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikiko zaio, baita Kontseilua ere, eta funtzionalki Kontseiluaren mende egongo da.

3.– Koordinazio Batzorde Iraunkorra honako kide hauek osatuko dute:

a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ordezkatzeko 3 pertsona:

– Eusko Jaurlaritzaren ordezkari 1, Gizartezerbitzuen arloan eskumena duen Saileko sailburu titularrak izendatutakoa.

– Foru-aldundien ordezkari 1, foru-aldundiek beren artean hitzartutako irizpideei jarraiki izendatua.

– Udalen ordezkari 1, Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen bidez izendatua.

b) Euskadiko Osasun Sistemaren 3 ordezkari, Osasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuak izendatutakoak.

c) Batzordeko idazkari teknikoaren eginkizunak urtebetez beteko dituen kide 1. Bere Sailari atxikitako langileen artean, epe horretan Kontseiluaren Lehendakaria betetzen duen sailburuak izendatuko du. Bere lana betetzeaz gain, kide horrek 11. artikuluan aurreikusitako Kontseiluaren Idazkaritzako eginkizunak beteko ditu.

4.– Koordinazio Batzorde Iraunkorrak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren bilkuretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Kontseiluaren osoko bilkuretan hartutako erabakiak garatu eta gauzatzeko neurriak hartzea.

c) Autonomia Erkidegoko eragile sozialen eta sanitarioen arteko konbergentzia kudeatzea.

d) Kontseiluak ezarritako arauen arabera Plangintza autonomikoa gauzatzeko behar diren neurriak hartzea.

e) Kontseiluak agintzen dizkion bestelako eginkizun guztiak.

Artículo 13.– Comisión de Coordinación Permanente.

1.– La Comisión de Coordinación Permanente es el órgano encargado de promover el cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo, por delegación de éste, así como de promover un acercamiento de las posiciones entre las instituciones para alcanzar dichos acuerdos.

2.– La Comisión estará adscrita, como el propio Consejo, al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Sanidad, y dependerá funcionalmente del Consejo.

3.– La Comisión de Coordinación Permanente estará compuesta por:

a) 3 personas en representación del Sistema Vasco de Servicios Sociales:

– 1 representante del Gobierno Vasco, designado por la Consejera o el Consejero titular del Departamento competente en materia de Servicios Sociales.

– 1 representante de las Diputaciones Forales, designado por las mismas de acuerdo con los criterios entre ellas establecidos.

– 1 representante de los Ayuntamientos, designado a través de Eudel/Asociación de Municipios Vascos.

b) 3 personas en representación del Sistema Sanitario de Euskadi, que serán designadas por la Consejera o el Consejero titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Sanidad.

c) Una persona que ejercerá las funciones correspondientes a la secretaría técnica de la Comisión por el periodo de un año. Será designada, de entre el personal adscrito a su departamento, por el Consejero o Consejera que, durante dicho plazo, ostente la Presidencia del Consejo. Además del desempeño de su labor, dicha persona asumirá las funciones de Secretaría del Consejo previstas en el artículo 11.

4.– La Comisión de Coordinación Permanente ejercerá las siguientes funciones:

a) Participar en las reuniones del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, con voz y sin voto.

b) Adoptar las medidas para el desarrollo y la ejecución de los acuerdos adoptados en las sesiones plenarios del Consejo.

c) Gestionar la convergencia entre los distintos agentes sociales y sanitarios en el ámbito autonómico.

d) Adoptar las medidas necesarias para ejecutar la planificación autonómica de acuerdo con las directrices establecidas por el Consejo.

e) Todas aquellas otras funciones que el Consejo pueda encomendarle.

14. artikulua.– Baliabide teknikoak eta giza baliabideak.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Lehendakaritza duen sailburu titularrari dagokion Eusko Jaurlaritzaren Sailak behar den babes eta laguntza emango dio Kontseiluari, bere baliabide teknikoen eta giza baliabideen bitartez. Horren haritik, Kontseiluaren Idazkaritza nahiz Koordinazio Batzorde Iraunkorraren idazkaritza kasu bakoitzean dagokion Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikitako langileek beteko dituzte.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 2. artikuluko 3. idatz-zatian jasotako kide anitzeko organoen zerrendan beste letra bat gehitu da, eta honela geratuko da idatzia:

«k) Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 46.6 artikulua araberatua».

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua eratzea.

Dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak arlo soziosanitarioan beste euskal erakunde batzuekin sinatua duen lankidetzahitzarmenaren eremuan jardungo du, bertan bildutako kide anitzeko koordinazio-organoa indargabetzeko; era berean, epe horren barruan, dekretu honetan araututako Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua eratuko du.

Bigarrena.– Arau-garapena.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari dagokio bere Funtzionamendu Araudia egitea eta aldatzea, eta, hurrenez hurren, Osasunaren arloan eta Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzaren sailletako titularrek onartu beharko dute, adierazitako Kontseilua eratu eta sei hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Ordezko araubidea.

Dekretu honetan aurreikusi ez diren kasu guztietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da, bereziki, prozedurarekin edo kide anitzeko organoekin loturiko gaitetan.

Artículo 14.– Medios técnicos y personales.

El Departamento del Gobierno Vasco cuya Consejera o Consejero titular ejerce la Presidencia del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, prestará, mediante sus medios técnicos y personales, el apoyo y asistencia necesarios al Consejo. En este sentido, tanto la Secretaría del Consejo como la de la Comisión de Coordinación Permanente recaerán en personal adscrito al Departamento del Gobierno Vasco que en su caso corresponda.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se añade una letra más a la relación de órganos colegiados que recoge el artículo 2, apartado 3, del Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo, que quedará redactada como:

«k) Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria, creado conforme al artículo 46.6 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales».

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Constitución del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria.

Dentro del plazo de tres meses desde la entrada en vigor del presente Decreto, el Gobierno Vasco actuará en el ámbito del convenio de colaboración que tiene suscrito en materia sociosanitaria con otras instituciones vascas a fin de dejar sin efecto el órgano colegiado de coordinación allí contemplado; asimismo, en dicho plazo procederá a la constitución del Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria regulado en este Decreto.

Segunda.– Desarrollo normativo.

Corresponderá al Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria la elaboración y modificación de su Reglamento de Funcionamiento, que deberá ser aprobado por las personas que sean titulares, respectivamente, de los departamentos del Gobierno Vasco competentes en Sanidad y en Servicios Sociales, en un plazo de 6 meses a contar de la fecha de constitución del mencionado Consejo.

Tercera.– Régimen supletorio.

En todo lo no previsto en el presente Decreto, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en especial por lo que se refiere a cuestiones procedimentales o relativas a órganos colegiados.

Laugarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 5ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.

Cuarta.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.